

# ERRODAMENDUEN BIDEZ GIDATUTAKO ARDATZEN DISEINUA ETA NEURRIAK IKASTAROA

<b>GAIA</b>	Ingeniaritza Mekanikoa eta Fabrikazio Prozesuak
<b>ECTS/ORDUAK</b>	16 ORDU
<b>EGUTEGIA</b>	2022/11/14 - 2022/11/15 As-At
<b>TOKIA</b>	<u>Arrasate-Mondragón</u>
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>MODALITATEA</b>	Aurrez aurrekoa

**Informazio gehiago  
eta izen-ematea**

## HELBURUAK

Errodamenduen oinarritzko kontzeptu eta neurrien ikastaroa bulego teknikoko langileentzat edo errodamenduak dituzten makinak eta mekanismoak diseinatzen dituzten langileentzat da. Ikastaroaren helburua da errodamenduen erabilerari buruzko oinarritzko kontzeptuak, neurriak ezartzeko metodoak eta errodamenduen funtzionamendu egokirako diseinuari buruzko gogoeta praktikoak erakustea. Errodamenduen aplikazioetako tribologiaren eta lubrifikazioaren oinarritzko kontzeptuak ere landuko dira.

Hauek dira ikastaroaren helburuak:

- Errodamenduen oinarritzko kontzeptuak erakustea: errodamendu eta muntaketa motak, errodamenduen materialak, egungo araudiak eta errodamenduen neurriak ezartzeko sekuentzia.
- Errodamenduak dimentsionatzeko prozesuak erakustea eta aplikazio praktikoak egitea
- Errodamenduaren funtzionamendu egokirako diseinu-gogoetak erakustea
- Errodamenduei aplikatutako tribologiaren oinarritzko kontzeptuak erakustea

## NORI ZUZENDUA

- Ingeniaritza saileko arduradunak
- Produktuburuak
- Bulego teknikoko langileak

# PROGRAMA

## 1. Ikastaroaren aurkezpena eta agenda

## 2. Sarrera

- Aplikazioak
- Geometria eta errodamenduen zatiak
- Errodamendu motak, sailkapena eta izendapena
- Errodamenduen materialak
- Errodamenduak fabrikatzeko prozesuak
- Muntaketa motak eta errodamenduen doikuntzak.
- Errodamenduak dimentsionatzeko arauak
- Errodamenduak dimentsionatzeko sekuentzia

## 3. Errodamenduen gaineko kargak

- Kanpoko eta barruko kargak
- Karga baliokidearen kalkulua
- Kargaren banaketa errodamenduen gainean

## 4. Errodamenduetako bizitzaren kalkulua

- Bizitza kalkulatzeko oinarriko printzipioak
- Errodamenduetako bizitza klasikoaren kalkulua
- Bizitza aldatuaren kalkulua.
- Bizitza-kalkulua, errodamenduen barne-geometria kontuan hartuta

## 5. Errodamenduak dimentsionatzeko aplikazioak, software propioaren eta komertzialaren bidez

- 1. kalkulu-adibidea: errodamenduen neurriak bizitza aldatuaren kalkularen arabera
- 2. kalkulu-adibidea: errodamenduen neurriak bizi-kalularen arabera, errodamenduaren barne-geometria kontuan hartuta

## 6. Kalkulu-egiaztapenak

- Abiadura maximoa eta funtzionamendu-abiadura
- Errodamenduen zurruntasuna eta maiztasun propioak
- Bibrazioak eta zarata errodamenduetan

## 7. Diseinuari buruzko ohar praktikoak

- Diseinuari buruzko gogoetak errodamenduak muntatzeko eta lerrokatzeko.
- Errodamenduak muntatzeko teknikak

## 8. Errodamenduetako tribologiaren hastapenak

- Tribologiaren oinarriko printzipioak

- Lubrifikatzaileak
- Ukipen elastohidrodinamikoa (EHL)

## IRAKASLEAK

Larrañaga Amilibia, Jon

## EGUTEGIA

2022/11/14 - 2022/11/15

As-At

08:30-17:30

---

<https://www.mondragon.edu/cursos/eu/ikastaroa/errodamenduen-bidez-gidatutako-ardatzen-diseinua-eta-neurriak>